

ARAUDIA: MUSIKAGELA ENTSEGU ARETOAK

2022KO URTARRILA

HITZAURREA

Musikagelak zerbitzuaren baliabide publikoak ahalik eta gehien optimizatzea du helburua. Profil desberdinetako erabiltzaileak eta proiektuak ahalik eta baldintza onenetan uztartea baina zerbitzuan betirako geratu gabe. Filosofia horri esker herritarrek zerbitzuan sartzeko baldintza berak dituzte eta erabiltzaileak denboran zehar txandakatzen joan daitezke.

Araudia errealitate desberdinei erantzuna ematen saiatzen da. Horregatik, entsegu-aretoak erabiltzeko eta gozatzeko bi modalitate ezartzen dira, proiektu bakoitzak aurkezten dituen asmoen eta errendimenduaren arabera.

Abiapuntua txandakatzeko-modalitatea da. Bertaratzearen jarraipena egiten da eta denbora gehien entseatzeko duten taldeei baldintza malguagoak ematen zaizkie aretoen ordutegi-erreserbei eta intendentziari dagokienez.

Aktiboan dauden eta helburu profesionalak dituzten musika-proiektuek maila bat igo ahal izango dute eta egoitza-modalitatean sartu helburu zehatzak lortzeko zerbitzua erabiltzen duten epean.

Guztira, zerbitzuak egokitutako 13 entsegu-areto eskaintzen ditu: zortzi Egia K.E.n eta beste bostak Intxaurren K.E.n.

ERABILERA ARAUAK

ERABILTZAILEEN IZEN EMATEA

Zerbitzu hau musika aplikatua jotzen duten Donostiako talde guztiek erabili ahal izango dute. Gutxienez kideen % 50 udalerrikoa dela egiaztatzeko, errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da (ez da onartuko 3 hilabete baino gehiagoko erroldarik eta 2 urte igaro ondoren berriro eskatuko da baldintza hori betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko). Erabiltzailea deritza instalazioak darabilzkin talde edo pertsona bakoitza.

Izena emateko orriak bete beharko dira taldeari eta hura osatzen duten pertsonen zerbitzuan alta emateko. Beharrezkoa da erabiltzaile guztiek NANaren fotokopia bat aurkeztea. Datu pertsonalak banan-banan sartuko ditu kide bakoitzak, eta **ezin izango da entseatzeko hasi** harik eta paper guztiak entregatuta eta behar bezala beteta egon arte.

ENTSEGU MODALITATEAK

1. TXANDAKATZE MODALITATEA (MUSIKAGELA EGIA K.E.)

Txandakatze-modalitatea hasierakoa izango da Musikagelako aretoetan entseatzen hasten diren talde guztientzat: hornituak edo hutsik (erabiltzaileek beren ekipoak muntatu eta desmuntatzen dituzte).

Hiru aukera daude hilean eskatzen den saiakuntza kopuruaren arabera:

- 1. txandaketa (1. tx):** astean saio 1 egun finkoarekin (hilean 4 entsegu).
- 2. txandaketa (2. tx):** astean 2 saiakuntza egun finkoekin (hilean 8 entsegu).
- 3. saio solteak:** egun finkorik gabeko entseguak, dauden hutsuneen arabera.

Saio bakoitzak **2 ordu eta 45** minutuko iraupena izango du, muntatzeko eta desmuntatzeko denbora barne.

Sartzeko eta jasotzeko garaian puntualitatea beharrezkoa da, saioak ezarritakoa baino gehiago ez luzatzeko eta beste erabiltzaile batzuei edo ixteko ordutegiari kalte ez egiteko.

Arduraduna aretoetatik pasako da saioa amaitu baino 15 minutu lehenago, eta ordutegia betetzen dela egiaztatuko du. Azken 15 minutu horiek jasotzeko erabili behar dira (kontsultatu biltegi-aukera 1.4 puntuan).

Izena ematean talde bakoitzak bere ordutegi-erreserba egingo du eta erabilgarritasunaren arabera aldatu ahal izango du. Nahi den ordua okupatuta badago itxaron-zerrenda batera pasatuko dira eta izena ematearen hurrenkeran jakineraziko zaie libre geratzen denean.

Aretoetara esleitutako orduan sartzeko, beharrezkoa izango da Musikagelako bulegora joatea, iritsiera erregistra dadin. Era berean, irteeraren berri eman behar da, aretoaren egoera egiaztatu eta itxita gera dadin.

Bertaratzearen jarraipena hileroko egingo da eta erregularitasuna duten talde/erabiltzaileek aukeratutako eguna mantendu ahal izango dute.

48 ordu lehenago abisatu gabe ez joatea hutsegite larritzat hartuko da eta behar bezala justifikatzen ez bada, hurrengo hilean aukeratutako eguna galtzarekin zigortuko da.

Sei hilean behin ebaluatuko da taldeen bertaratzea eta aretoen erabilera.

Hobekien baloratutakoek Intxaurren K.E.ko egoitza-eredua eskatu ahal izango dute, erabilgarritasunaren arabera eta betiere euren proiektua markatutako profileraren arabera (kontsultatu 2. puntua, Egoitza aretoak).

GARRANTZITSUA:

Txandakate-aretoetako egonaldia ez da mugagabea izango, eta talde bat 5 urtera iristen bada, lehenetsua galduko du gainerako erabiltzaileen aurrean eta eskariaren arabera, zerbitzua utzi beharko du. Neurri horren bidez erabiltzaile berriei aukera-berdintasuna eman nahi zaie eta zerbitzua bizirik mantentzen da

Musikagelako erabiltzaileek erabilera-arauak onartzen dituen kontratu bat sinatu beharko dute, eta Donostia Kultura salbuetsiko du musika-tresnek beren instalazioetan izan ditzaketan kalte, galera eta gainerako gorabeheretatik.

1.2 ARETO-ZERBITZUAREN ORDUTEGIAK (MG EGIA K.E.)

Zerbitzua urte osoan egongo da zabalik, igandeetan, jaiegunetan eta abuztuan 15 egunetan izan ezik.

Saioen iraupena 2 ordu eta 45 minutukoa da (muntatzea eta desmuntatzea barne). Saio batetik bestera bitartean, 15 minutu emango dira aretoa aireztatu eta baldintza teknikoak eta higienikoak bermatzeko ondorengo erabiltzaileei.

EGIA K.E.	ORDUTEGIAK	
GOIZEZ	Astelehena - Asteartea - Asteazkena - Osteguna - Ostirala - Larunbata 10:30-13:15	
ARRATSALDEZ	A - A - A - O - O 16:00-18:45 y 19:00-21:45	Larunbatetan 16:00 -18:45

Aretoen erreserba aurrez aurre edo 943 298 032 telefonoan egin daiteke honako ordutegian: astelehenetik ostiralera 16:00-22:00 eta larunbatetan 10:30-13:30 eta 16:00-19:00.

Jendaurreko arreta ordutegia eta entsegu ordutegia ez dira berdinak.

Aretoen eskaerak edo aldaketak musikagela@donostia.eus-en bidez ere egin daitezke.

1.3 BILTEGIA

Erregulartasunez entseatzten duten erabiltzaileek biltegian gorde ahal izango dituzte beren ekipoak (1 eta 2 LAE modalitateak). Talde/erabiltzaile bakoitzak behar bezala identifikatutako espazio bat izango du eta bertan entseatzeko behar duen materiala baino ezingo du gorde (gehienez ere 3 apaleko apalategi bat).

Musikagelako arduradunen aurrean bakarrik sartu ahal izango da biltegia. Erabiltzaile batek biltegia goizean sartu nahi badu (esleitutako ordutegitik kanpo), aldez aurretik jakinarazi beharko dio Musikagelako arduradunari Egia Kultur Etxeko langileei abisua emateko (biltegia ez da irekiko aldez aurretik abisatu gabe). Erabiltzaileak eraikineko sarrerako bulegoan identifikatu beharko dira baliozko nortasun-agiri batekin (NAN, gidabaimena, etab.) hala eskatzen dieten bakoitzean.

Biltegian edo aretoetan gordetzen den materialak inolako kalterik jasoko balu edo lapurretarik izango balitz, zerbitzua ez litzateke erantzule izango.

1.4. MUSIKAGELA TXANDAKATZE TARIFAK EGIA K.E.

Saioak hileroko ordaindu behar dira aldez aurretik, zordunketa-/kreditu-txartelarekin, hilaren 7a baino lehen. Kuotaren ordainketan atzerapenik ikusten bada, ez da aretoan sartzen utziko.

HILEKO TARIFAK MUSIKAGELA TXANDAKETA Egia K.E.	1 txand. Asteko saioa hilabetez (Lau entsegu guztira).	32€
	2 txand . Astean bi saio hilabetez zehar (zortzi entsegu guztira).	50€
	Saio solteak (egun finkorik gabeko saiakuntzak).	10€
	Banda bakoitzeko biltegia	7€

1.5. EKIPAMENDUEN ZAMA LANETARAKO GAUEKO SARBIDEA

Eraikina itxita dagoenean, Musikagelako bulegora gauez sartu ahal izango da ekipoak bertan deskargatzeko (anplifikadoreak, tresnak, etab.).

Aldez aurretik Musikagelako langileei jakinarazi beharko zaie kontratu bat presta dezaten. Bertan agertu beharko dira zerbitzua eskatzen duen pertsona eta zein taldetakoa den.

Sinadurarekin sarbide-giltza bat emango da (40 euroko fidantza ingesatu behar da kreditu-txartelarekin, galduz gero birjarpena ordaintzeko). Zerbitzua irekita dagoen lehen egunean eraman behar da materiala bulegotik biltegiara, eta akatsik ikusten ez bada fidantza itzuliko da.

Zentroak ez du bere gain hartuko gaueko ordutegian gertatzen diren lapurreten edo kalteen erantzukizunik.

2. EGOITZA-MODALITATEA (INTXAURRONDO K.E.)

Musikagela Intxaurrendoko aretoek egoitza modalitatean dauden taldeak hartuko dituzte. Aktibo dauden eta asmo profesionalari eusten dioten musika-proiektuen egoitza-aldiak sei hilean behin berrituko dira 3 urte arteko mugarekin.

2.1 BALDINTZAK:

Egoitzetarako sarrera zabalik dago Donostiari lotutako musika-proiektuentzat.

Musikagelako erabiltzaile diren edo izan diren eta aurrez deskribatutako profilararekin bat datozen taldeek izango dute lehentasuna egoitzan sartzeko.

Zerbitzua arautzen duen hizpide nagusiaren arabera, taldearen % 50 hirian errolatuta egon beharko da.

Donostia Kulturak zerbitzuarekin beste lotura batzuk dituzten taldeak gonbidatzeko erabakia beretzat gordetzen du.

Egoitzan sartzen diren proiektuek zerbitzua erabiltzen duten bitartean lortu nahi diren helburu zehatzak planteatu beharko dituzte. Honako hauek izan daitezke:

Abesti baten edo batzuen aurreproduzioa eta grabazioa egitea, edo disko, EP edo LP bat argitaratzea.

Musikagelak edo Dklubak antolatutako ekitaldi batean aurkeztu ahal izango den kontzertu-errepertorioa prestatzea, bai eta laster egingo diren kontzertu-egunen egutegi bat ere, jendaurrean iragarri dena.

Bideo edo promoziorako-materiala, webgunea, RRSS, etab.

Proiektuentzat aurrera pausu bat esan nahi duen ekintza bat eta Musikagelaren laguntzarik gabe gauzatu ezin daitekeena

Halaber, denbora horretan, taldeek konpromesu hauek hartu beharko dituzte:

Astean gutxienez entsegu batzuk egiten dira, eta hilero monitorizatuko dira.

Musikagelaren zerbitzutik kanpoko gutxieneko kontzertu kopuru bat urtean adostea .

Donostia Kulturari lehentasuna ematea bere aretoetan aurkeztu dezan aldi horretan sortutako materiala (grabazioak, diskoak...).

Musikagela jaialdietan parte hartzea gonbidatzen zaienean.

2.2 FUNTZIONAMENDUA:

Sarbidea pertsonalizatua da, giltzekin eta sarbide-kodeekin.

Intxaurren K.E.ko entsegu ordutegia 16 ordukoa da goizeko 9: 00etatik goizaldeko 01: 00etara.

Ordutegi horretatik kanpo, materiala hartzeko edo uzteko baino ezin da instalazioetara sartu.

Aretoetan taldeek euren ekipoak beti muntatuak dituzte. (Areto bera erabiltzen duten proiektuen kopurua espazio-mugaren arabera izango da eta talde bakoitzeko kide kopurua eta aretoaren tamaina kontuan hartuko dira. Biltegi aukera eskaintzen da esleitutako aretoan lekua libratzeko (hileko 7 €tarifa).

Egoitza mantentzeko, astean gutxienez 3 entsegu egin behar dira. Bertaratzea hilero erregistratuko da eta eskatutako kopuruaren azpitik dagoela ikusiz gero, interesdunei jakinaraziko zaie. Hiru hilabetez egoerak bere horretan jarraitzen badu eta errendimendu baxua behar bezala justifikatuta ez badago, txandakatze modalitatean pasatzeko aukera emango zaie (Egia K.E.), edo Musikagelatik alde egin beharko dute.

Taldea konpromisoa galduz badoa edo egoitza bitartean desegiten bada, beste talde batek hartuko du euren tokia. Proiektu berriari aretoan sartzen den unetik aurrera kontatuko zaio egoitzaldia.

Taldeek partaide aldaketaren bat edo beste izan dezaketela aurreikusten da. Egoitza-modalitatean sartzean zehaztuko da proiektu-mota nahasteak saihesteko.

Taldean egindako edozein partaide aldaketa (baja edo alta) koordinatzaileari jakinarazi behar zaio, datuak aldatu eta erregistratutako taldeak araudia betetzen jarraitzen duela egiazta dezan.

Beste musikari batzuen bisitak onartzen dira instalazioetan, baina alde aurretik eta idatziz jakinarazi behar da musikagela@donostia.eus-era.

Egoitza proiektuei emango zaie, ez pertsonari. Proiektu bateko kide gehienek bertan behera uzteagatik desegiten bada, gainerakoek lokala utzi beharko dute beste proiektu bati lekua egiteko. Taldeak ez dira erosoegi aurkitu behar, ez eta egoitzak ematen dituen abantailez betirako baliatu ere.

2.3. LOTUTAKO MUSIKA-PROIEKTUAK

Egoitzako zerbitzuaren erabiltzaile batek musika-proiektu batean baino gehiagotan parte hartzen badu, beste proiektuak lokal bera erabiltzeko aukera badago da, betiere baldintza hauek betetzen badira:

Sei hileko egoitzaren proiektu titularrak eta lotutako proiektuak gutxienez kide bat izatea elkarrekin.

Lotutako proiektuak espazio gehigarri iraunkorra okupatu beharrik ez izatea. Horrek esan nahi du proiektu titularrekin partekatu beharko duela dagoen espazioa edo entsegu bakoitzaren ondoren erretiratu.

Lokalaren titular diren proiektuek libre utzitako ordutegietara egokitzea.

Lotutako proiektuak hileko txandakatzetarikotako bat hartzea baldintzenarabera eta biltegiarena ere beharrezkoa izanez gero.

2.3. TARIFAK

Bizilekuaren hileko ordainketa kreditu-txartelarekin egingo da hilabete bakoitzeko lehen astean.

EGOITZA Intxaurren K.E.	1, 2, 3, 4 eta 5 aretoak.	75€
	2. aretoa (Txand 2 tarifa) * Lokala 2 proiektuekin partekatzen dutenean	50€
	Biltegia taldeko	7€

3. ZIGORRAK (EGIA ETA INTXAURRONDO K.E. ERABILTZAILEAK)

Zigorrak hilabeteko bajatik behin betiko bajara bitartekoak izango dira honako kasu hauetan:

Instalazioak eta zentroaren jarraibideak ez errespetatzea.

Musikagela zerbitzuko langileen edo zentroko langileen oharrei jaramonik ez egitea.

Eraikin barruan erretzea eta/edo alkohola kontsumitzea.

Aretoen barruan jatea.

Zikintzea, kalteak eragitea, edo begirunerik gabeko beste edozein jokabide.

Biltegira edo entsegu-aretoetara sartzeta (nahiz eta irekita egon), kultur etxeko arduradunak edo langileek jakin gabe.

Justifikaziorik gabeko atzerapena ordainketan.

Entsegetara ez joatea, justifikaziorik gabe eta abisurik gabe.

Ordutegia ez errespetatzea (sarrera edo irteera).

Musikagelan erregistratu gabeko pertsonak aretoetara sartzeta arduradunari jakinarazi gabe.

Biltegiko atea irekita utzi.

Zerbitzuko koordinatzaileak hitzartutako bilera batera ez agertzea justifikaziorik gabe.

HARREMANETARAKO:

Telf. 943 298032

musikagela@donostia.eus

EGIA K.E. Baztan Kalea, 21 20012 Donostia

www.musikagela.eus